



# MENDEXA



## ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Hondo berdean hegazti baltza mokoan perra bat daroala goriori; hori guztia zilarrezko profilagaz. Puntan uhin urdin eta zilarrezkoak.

## DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de sinople, un ave de sable, portando en el pico una herradura ardiendo de gules, todo ello perfilado de plata, en punta ondas de agua, de plata y azur.

## AITAMEN HISTORIKOA

Busturiko merindadeko eleizatea. Foruen garaian fidel batek zuzentzen eban, eta Gernikako Batzar Nagusietan 23. eserlekua eta botua eukazan. Erdi Aroan Likonatarrek eta Mendexarrak finkatu ziran bertan.

1704ko bagilaren 28an Jaurerriko Batzar Nagusiek emon eben aginduari jarraituz Bizkaia osoan fogerazinoa egin zan jaurerriko gastu orokorren banaketa egiteko, eta fogerazino horren arabera urte horretan Mendexan hirurogeita hamar fogera egozan. 1754ko garagarilaren 16an Fernando VI.a erregea zerbitzatzea erabaki eben

Bizkaiko Jaurerriko Batzar Nagusietan; erabakiari jarraituz ehun eta hirurogeita hamar marinelek osotatutako gudari taldea egin eta erregeari Bizkaiko marinel guztien zerrenda bidali behar jakon. Mendexa eta inguruetako beste herri batzuk ez etozan bat erabakiagaz, euren herritarrek nekazariak zirala, eta eurek ez eukela marinel treberik esan eben, baina batzarrak erabaki eban portuek, zein portuen ondoko herriek zerrenda bidali behar ebela, eta horretarako lau eguneko epea ezarri eban batzarra amaitzen zan egunetik hasita.



## RESEÑA HISTÓRICA


Anteiglesia de la merindad de Busturia, bajo el régimen foral se hallaba gobernada por un fiel con el voto y asiento nº 23 en las Juntas Generales de Gernika. En la época medieval se asentaron en sus tierras los linajes Likona y Mendexa.

En el año 1704 contaba con sesenta hogueras, según se desprende de un fogueramiento efectuado en el citado año en todo Bizkaia, decretado por la Junta General del Señorío con fecha 28 de junio, a fin de poder hacer los repartimientos de los gastos generales del Señorío. La Junta General del Señorío de Bizkaia decidió el 16 de julio de 1754 servir al rey

Fernando VI con un contingente de marinería de ciento setenta hombres y enviar al rey una lista de toda la gente de mar existente en Bizkaia. Mendexa y otros pueblos aledaños protestaron, alegando que no tenían marineros hábiles, sino que sus vecinos se dedicaban a la agricultura. Sin embargo la junta decidió que tanto los puertos como sus aledaños enviaran la lista solicitada en el plazo de cuatro días a partir de la terminación de las juntas.

## IKURRIÑA

Deskribapena: purpurazkoa. Alde batean Bizkaiko armarría eta bestean, neurri berean, Mendexakoa.



## BANDERA

Descripción: de color púrpura. Por un lado lleva el escudo de Bizkaia, y con iguales proporciones, en el otro lado el de Mendexa.